




Gisa huntako barkuak (sahetsetako taulak bat bertzearen gainean) egiten zituzten Vikingek, bai eta geroago Euskaldunek

Agotak, Iparreko gizonak



François Aillet

Hemen agertzen dauzuegu Euskal Herri huntan (Bidarra) erroak dituen François Ailletek Stockholmetik helarazi daukun artikulua.

Hipotesia asko bada Agoten jatorriaz, lehengo denboretan Gaskoinian eta Euskal Herrian baztertuak ziren horietaz. Neolitikotik, Bisigotetatik, Sarrazenoetatik, Katarretatik, Juduetatik edo lepradunetatik zetorrela da errana izan. Bertze esplikazione bat balaiteke, sinpleago eta koherenteagoa.

1/ Mota etnikoa

Lekukotasun zenbaitek diote Agotek bazutela eite nordikoa: larru zuria, ile horiak, begi argiak. Hala nola 1783ko euskal kantu batek dion: "Gendetan den ederrena ume duzu Agota: bilo hori, larru xuri eta begi nabarra".

Francisque Michel (1809-1887) Lyongo etnologoak – ama Alemaniakoa zuen – kondatzen du Arizkunen (Nafarroa) Agota batentzat hartua izan zela, bere gorputz handia, ile horiak eta begi urdinen gatik.

Rosny Gazte (1859-1948) idazleak Capbretoneko agotak deskribatzen ditu "zuhail, horail hits eta begiak liho urdin koloredun" gisa.

Ipar Europako populuek dituzte soilik ezaugarri fisiko horiek. Han daukaten eguzki epelari egokitutakoak. Alabainan, larru zuri batean lezakete hobekien sintetizatu D bitamina Ipa-

rreko eguzki epelaren izpiek (Ipar European emigratzen duten larru beltzeko jendeek sofrizten dute D bitaminaren eskasiaz, Afrikako eguzki biziari egokitua baitute larrua eta ez Iparreko eguzki ahulari).

2/ Ofizio berezikoak

Agotak zur lanetako ofiziale trebeak ziren, Ipar Europako populuek, bereziki Eskandinaviarrak, ziren eta gaur egun oraino diren bezala: zurgin, itsas-maiasturu, menuzer, dupagile, orgagile eta abar.

Ikerle batzuk (Thierry du Pasquier, Pierre Yturbide, eta abar) uste dute Eskandinaviarrek ziztuztela Euskaldunak eta Gaskoinak trebatu balea-ihizira.

3/ Teknikak

Iparreko eraikuntza teknikak ezagun dira Gaskoiniako eta Euskal Herriko zurbesodun

etxeetan (*maisons à colombages*), bai eta barkuetan, Vikingek eraikitzen zituztenen idurikoak (*bateaux à clins*), erran nahi baita ontzien sahetsetako taulek bat bertzea elgar estaltzen zutela taularen gain partean.

Konklusioa

Gorago idatzitakoak pentsatzera ematen du Agotak Vikingen ondokoak zirela. Hauek Gaskoinia eta Euskal Herria suntsitu zuten Erdi-Aroan. Horietarik frangok lurralde horietan eraman zuten aitzina beren bizia bainan ez ziren aski kopurutsuak beren larderia inposatzeko Normandian bezala. Etsai ingurunean iraun zuten beren jakitate teknikoeri esker. Endogamian bizitzera beharturik (beren artean, bertzeekin nahasi gabe), gisa hortan luzaz beiratu zuten beren mota etnikoa.

François Aillet, Stockholm